

Jurdana Uriarte Lejarraga, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, Gaikuntza Nazionalako Funtzionarioak, hurrengo **PROPOSAMEN TXOSTENA** igorri dut:

## 1. Aurrekariak

Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 50. artikulua eta 14. Xedapen gehigarria, uztailaren 6ko 6/1989ko Euskal Funtzio Publikoaren Legearen 70.1 artikulua, Udalhitzen 28 eta hurrengoko artikulua kontuan hartuta oporrak hartuko ditut 2017ko irailaren 18tik 2017ko irailaren 29ra arte, biak barne. Oporraldi horrek dakar idazkari akzidentala izendatzeko beharrezana, nire oporraldian ordeztu nazan.

## 2. Oinarri juridikoak

**Lehena.-** Gaikuntza Nazionaldun Funtzionarioen Araubide Juridikoa arautzen duen irailaren 18ko 1174/1987 Errege Dekretuak 1.3. artikuluan dio: *Quien ostente la responsabilidad administrativa de cada una de las funciones referidas en el apartado 1 tendrá atribuida la dirección de los servicios encargados de su realización, sin perjuicio de las atribuciones de los órganos de gobierno de la Corporación Local en materia de organización y dirección de sus servicios administrativos.*

Hori dela eta, proposamen-txosten hau igorri da, Alkateak, langileriaren nagusia denak, oinarriztat izan dezan behin-behineko idazkariaren oporraldian idazkari akzidentala izendatzeko orduan

**Bigarrena.-** Gaikuntza Nazionalako Funtzionarioen lanpostuak hornitzeko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 33.1 artikulua aukera ematen du idazkari akzidentalak izendatzeko. Hain zuzen ere, zera dio: *Quando no fuese posible la provisión del puesto por los procedimientos previstos en los artículos anteriores del presente Real Decreto, las Corporaciones locales*



*podrán nombrar con carácter accidental a uno de sus funcionarios suficientemente capacitado.*

Kontuan izanda oporraldia bi asteetakoa dela, idazkariaren falta ordezteko ez da aurrekusi egokia denik zereginak pilotzea, behin-behineko izendapena egitea edo zerbitzupeko komisioren formuletara jotzea. Horrela, udalaren giza baliabideen egitura ikusita, idazkariaren gabezia ordezteko idazkari lanpostua modu akzidentalean betetzea proposatzen da hurrengo eran:

- Udal honetako karrerako funtzionarioa den Miren Karmele Muñoa Arrigain izendatzea, A1 taldeko Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua duena Idazkaritza Sailean.

Aldi berean, proposatu da egiaztatzea ea udal aurrekontuan kontsignazio egoki eta nahikoa dagoen soldata desberdintasuna ordaintzeko proposatutako Administrazio Orokorreko Teknikariaren eta Idazkari lanpostuaren artean, akzidentalki idazkari lanak egiteagatik idazkariaren oporraldian zehar.


Hori guztia kontuan hartuta, igorri dut hurrengo

### **Proposamen-txostena**

**Lehena.**- Izendatzea akzidentalki idazkariaren oporraldian falta ordezteko, Miren Karmele Muñoa Arrigain, Udal honetako karrerako funtzionarioa, A1 taldekoa eta Idazkaritza Sailean Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostua betetzen duena, 2017ko irailaren 18tik 2017ko irailaren 29ra arte, biak barne.

**Bigarrena.**- Ordaintzea aipatutako funtzionarioari bere AOT lanpostuaren eta idazkari nagusiaren lanpostuaren soldatan dauden desberdintasuna, efektiboki eta akzidentalki idazkariaren zereginak burutzeagatik aipatutako epealdian.

**Hirugarrena.**- Jakinaraztea ebazpena interesdunari, izendapena onar dezan 3 egun balioduneko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita; eta ohartaraztea epe horren barruan ez badu berariaz onartuko, onartutzat hartuko dela.



Hala ere, Alkateak, langileen nagusiak, egoki deritzona erabaki dezake.

Bermeon, 2017ko irailaren 11an

Oniritzia  
Alkatea,



Idurre Bideguren Gabantxo



Idazkaria,



Jurdana Uriarte Lejarraga

